

LANSATIOAREN AKTA

2003ko otsailaren 27an, 19:00etan, Casares Kultur Etxeko Ekitaldi Aretoan, Lansatioari dagokion bilera egin da, Alkatetzak horren deialdia egin ondoren.

Idazkari gisa *Elisabet Arrieta, Arantxa Ferreras* eta *Mari Mar Jiménez* aritu dira, hots, Altzako Garapen Komunitarioarako Planaren Talde Teknikoa. Moderatzaile gisa *Eva Salaberría* aritu da, Auzoak eta Herritarren Partaidetzarako Bulegoko Teknikaria.

Jarraian aipatuko diren pertsona eta elkarteak azaldu dira bertara: Donostiako Alkate Txit Argia, *Odón Elorza jauna, Auzoak eta Herritarren Partaidetzarako eta Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritzarako Zinegotzi Ordezkaría, Enrique Ramos*, Hiri Zerbitzuko Zinegotzi Ordezkaría, *Alberto Rodríguez*, Altzako Elkarteak: I.G.E. (*Herrerako Herri Ikastetxea, Altza Herri Ikastetxea, Altzako Institutua, Harri Berri Haurren Herri Ikastetxea, Oleta Herri Ikastetxea, La Anunciata Hezkuntza Zentroa, Harri Berri Haurtzaindegia eta Herri Ametsa Ikastola*), Kultur Elkarteak (*Altzako Historia Mintegia, Bizarrain, Euskal Giroa, Buenawista Prolleckcioms*), Kirol Elkarteak (*Sporting de Herrera, Jolastokieta Kultur eta Aisialdi Elkarteak, Roteta Kirol Kluba*), Erretiratuen Elkarteak (*Aitonak, Gurea Larratxo, San Marcía*), Gazteria eta Denbora Libreko Elkarteak (*Kemetrontxo, Roteta Elkarteak, Argibide Gazte Taldea*), Emakume eta Gizarte Elkarteak (*Elkarteak Berri, Uztai Belar, Ostadar C.S.R.C., Hegaldi, S.E.D.I.V.I.*), Auzo Elkarteak (*Osteguna, Elkartasuna, Herripe, Auzoa, Bizirik Gaude, Gure Lizarpe Amets, Oletako Jaiak San Juan Batzordea, Pasai Antxoko Auzo Elkarteak, Molinao*); eta bertaratu diren gainerakoak (85 lagun gutxi gorabehera).

Beste hainbatek etorri ez izana barkatzeko eskatu dute eta bat egin dute Elkartearen proposamenekin: *Asteartea Lanerako Eskubidearen aldeko Elkarteak, Mendizaleak, REMAR*.

Eguneko gai-zerrenda: 2003ko otsailaren 27ko Lansaioa, 19:00etatik 21:30era, Casares Kultur Etxeko Ekitaldi Aretoan.

- ✓ 19.00 h. Aurkezpena
- ✓ 19.05-20.05 h. Elkarteek gai-alor bakoitzean lehentasuna duten premiak azalduko dituzte.
- ✓ 20.05-20.15 h. Alkateak esku hartuko du.
- ✓ 20.15-21,00 h. Elkarteek aurkeztutako diagnostikoan ageri diren ideiei buruzko gogoeta-eztabaida.
- ✓ 21,00 h. Udalaren eta Altzako elkarten artean lankidetzahitzarmen baterako zirriborroa eskaini da, Garapen Komunitariorako Plana gauzatzeko.

19,10 - EGUNEKO GAI-ZERRENDA AURKEZTU ETA IRAKURTZEA:
Eva Salaberría

Eskerrak ematen zaizkie Garapen Komunitariorako Planean interesaturik dauden elkarte parte-hartzaile eta pertsona partikular guztiei, bertara etortzeagatik.

Altzako Garapen Komunitariorako Planean orain arte egindako lana azaldu da: elkarateek diagnostikoa prestatu dute banaka, eta aldez aurretik bilerak egin dira gai-multzoka, lansaioa antolatzeari begira.

Garapen Komunitariorako Planean esku hartzen duten elkarateak: 60 elkarterekin jarri gara harremanetan, eta horietatik 51k parte hartzeko gogoan agertu zuten, eta 32 taldeko bileretara joan ziren.

Elkarateetako taldeekin aurrez egindako bilera horietan, diagnostikoan atzemandako premiei begira lehentasunen hurrenkera bat finkatzen ahalegindu ziren. Iritziak batu ondoren, taldearen diagnostiko komun bat biltzen duen agiri bat idatzi da.

Adierazpenak hurrenkera alfabetikoaren arabera egin dira, eta hain zuzen, hauek izan dira:

- ✓ I.G.E. - Ikasleen Gurasoen Elkarteak
- ✓ Kultur Elkarteak
- ✓ Kirol Elkarteak
- ✓ Gazteria eta Aisialdiko Elkarteak
- ✓ Erretiratuen Elkarteak
- ✓ Emakume eta Gizarte Elkarteak
- ✓ Auzo Elkarteak

19,15 - 19,45 ELKARTEETAKO TALDEEN AZALPENA

1. Multzoa: IKASLEEN GURASOEN ELKARTEAK

- Lansaiora etorri direnak: Herrera Herri Ikastetxeko IGE, Altza Herri Ikastetxeko IGE, Alzako Institutuko IGE, Harri Berri Haurren Herri Ikastetxeko IGE, Oleta Herri Ikastetxeko IGE, La Anunciata Hezkuntza Zentroko IGE, Harri Berri Haurtzaindegiko Guraso eta Hezitzaileen Elkarte eta Herri Ametsa Ikastolako IGE.
- Bokal eta ordezkaria: Nekane Eizagirre, Herri Ametsako IGE.

Aurkeztutako alderdiak honakoak izan dira:

"KULTURA ETA EUSKARA ARLOAK

Kultura:

- Jarduera-tailerrak egin ahal izateko guneak sortzea, hala nola antzerkia, zinema,... Kultur Etxean kokaturik, edo bestela, lokalak egokitzea (Altzan dauden lokalak, egun hutsik baitaude);
- Musika Eskola - Kontserbatorioa.

Euskara:

- Joan den urtean Euskararen Plan Estrategiko bat prestatzen eta lantzen aritu ziren: Bai Euskarari. Ez dira ezagutzen horretan egin diren aurrerapenak.

KIROL ARLOA

- Kiroldegiaren bigarren fasea garatzea, igerilekuak, berrikuntzak.
- Kirol erabilerak dituzten gunek irekiak (saskibaloia-kantxak, futbolekoak...) eta aisialdikoak sortzea.
- Altzan dauden kirol guneak/instalazioak artatu eta zaintzea.

HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA LAN ARLOAK

- Bai gazteentzat eta bai helduentzat (langabeak) ere prestakuntza-zikloak sortzea, lan-eskaerari egokituak. Beharrezkoa izango litzateke aldeaz aurreko azterketa bat egitea, lan-merkatuaren premiak zehazteari begira.
- Ikastetxe eta haurtzaindegien instalazioetan hobekuntzak egitea (ikastetxe bakoitzean eskaera zehatzak izan ohi dira).

INGURUMEN ARLOA

- San Markos ixtea.
- Lau Haizetako ingurua egokitzea (pasealekua, haur-eremua...).
- Bide-gorria luzatzea.
- Berdeguneak sortzea. Lehendik dauden berdeguneak artatu eta zaintzea.
- Molinaoko zabortegia garbitzea.
- Obrak egin bitartean edukiontziak jartzea (esaterako, kiroldegiaren inguruan).
- Nerecan ingurua egokitzea. Osasun-arazoak eragin ditzake erabat abandonatuta dagoen inguru horrek (arratoiak daude).
- Birziklatzeko materiala maizago jasotzea.

AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA ARLOAK

- Aisialdi eta denbora libreko jarduerak egiteko eremurik ez dago.
- Haur Parke batzuk, esate baterako Arriakoa (hondarrezkoa), ezin daitezke erabili beren egoera kaskarragatik.
- Parrokietatik kanpora denbora libreko taldeak sortzea.

PARTAIDETZA ARLOA

- Altzan burutzen diren proiektuak eta elkarteak koordinatzeaz arduratuko den erakunde bat sortu beharra.

GIZARTE ARLOA

- Hirugarren Adina: Zahar Etxe bat sortzea, Eguneko Zentroak, Etxeko Laguntzak Indartzea.
- Arazoak dituzten familientzako baliabide gehiago sortzea.
- Oinarrizko Unitatea: arintasun handiagoa eskaeren kudeaketan.
- Gazteentzako guneak eta lokalak sortzea.
- Anbulatorioa: Jendaurreko arreta eta zerbitzua hobetzea. Profesional gehiago behar dira, horien kopurua urriegia delako halako biztanleria ugariarentzat.

HIRIGINTZA ARLOA

- Gazteentzako etxebizitzak.
- Kaleetako argiztapena hobetzea, batez ere Kiroldegiaren ingurune horretan.
- Lurpeko aparkalekuak egitea.
- Lokalak hobeto aprobetxatzea.
- Garraioa hobetzea: lurralde historikoko beste gune batzuekin loturak hobetzea, topoa.
- Kaleetako asfaltatze-lanak hobetzea.
- Kaleetako garbiketa hobetzea.
- Larratxoko bidegurutzeari konponbide bat ematea.
- Semaforoek botoia edukitzea eta horiek artatzea.
- Aparkatzeko lekuak seinalatzea.
- Altzako sarbideak hobetzea (saihesbidetik Auzora sartzeko bidea, Larratxo).
- Kamioientzako aparkalekuak, toki gehiegi hartzen dute.
- Garaje-irteeretako zebra-bideak ezabatzea.
- Oinezkoentzako gune gehiago eta aparkaleku gutxiago.
- Plaza Gorria egokitzea eta hobetzea.
- Harria (Santa Isabel): hori estaltzeko bitartekoren bat bilatu.

BESTE ARLO BATZUK

- Kaleetan segurtasun eta zaintza handiagoa."

2. Multzoa: KULTUR ELKARTEAK

- Lansaiora etorri direnak: *Euskal Giroa, Altzako Historia Mintegia, Bizarrain, Buenavista Proyeziions.*
- Bokal eta ordezkaria: *Juan Carlos Mora, Altzako Historia Mintegikoa.*

Aurkeztutako alderdiak honakoak izan dira:

- Ez du zentzurik beharrak orain azaltzeak, Udalak lehendik badituelako beharrak ezagutzeko bideak.
- Aholku Batzorde Komunitario bat sortzea: gaur egun Altzak ez du Nortasun Komunitariorik. Altzako bizilagunen borondatea jasoko duen erakunde bat izan dadila.
- Garapen Komunitariorako Planak izango duen jarduera-eremua mugatzea.
- Euskararen Normalkuntza Plana bultzatzea.
- Gogoetarako proposamena, lan hau egiteko denbora gehiago eman beharra.
- Buenawista Prolleckzioms-en eskaerak irakurtzea:

"Buenawista Prolleckzioms Musika Elkarte (B.P.M.E.) musikari gazteen elkarte bat da, Buenavista Auzoan garai bateko Alkateordetzaren eraikinean gizarte eta kultur mailako eginkizun bat egiten hamasei urte daramatzana, Casares Pasealekua 2 zk.an, Altzako Donostiako barrutian.

Elkarte honen ustez, garrantzitsua da hainbat urtetatik hona Altzako gazteriaren artean zabaldutako behar baten berri ematea:

- Kultur jarduerari babesa ematea, musika-ekintzei laguntza eskainiko dieten azpiegiturak garatuz, hala nola, entseietarako lokalak, musika-jardueren kudeaketa eta aholkularitzarako guneak, kontzertuetarako aretoak, etab.

Alde horretatik, iruditzen zaigu Altzako auzoan hainbat ekimen aitzindari izan direla azpiegitura hauen garapenean, Buenavistan burututako ekintzek frogatzen duten moduan (B.P.M.E.ak Alkateordetzaren antzinako eraikina berreskuratu eta egokitu izana). Eginkizun horren helburu nagusia musika oinarritzat izan duten jarduerari leku bat eskaintzea izan da, halakoek ez baitzuten gauzatu ahal izateko tokirik, eta halaber, musikaren sustapen eta

zabalkundean diharduten beste ekintza batzuk programatzea (Altza Kultur Zentroa, Mogambo, etab.).

Halaber; uste dugu kultur jarduera honi babesa emango dioten ekipamenduak lortzea eta garatzea bermatzeko ahalegin guztiak egiten jarraitu behar dela. Musikaz kezkatutako gazteen kolektiboak, kulturaren arlo hau sustatu eta zabaltzeko gogoia izanez gero, aukera izan behar du bere potentzial guztia garatzeko."

3. multzoa: KIROL ELKARTEAK

- **Lansaiora etorri direnak: Sporting de Herrera Kirol Kluba eta Jolastokieta Kultur eta Aisialdirako Zentroa.**
- **Bokal eta ordezkaria: Miguel Angel Diez Sporting de Herrera Kirol Klubekoa eta Jolastokieta Kultur eta Aisialdirako Zentrokoa.**
- **Bat egin dute azaldutakoarekin: Roteta Kirol Klubak eta Mendizaleak Mendi Elkarateak.**

Aurkeztutako alderdiak honako hauek izan dira:

Atzemandako premiak:

- Altzako kiroldegiko 2. fasea.
- Jolastokietako pilotalekua.
- Aparkalekuak Nerecan inguruan.
- Herrerako futbol-zelaia: belarrezko zelaia, zelairako sarbideak, tribunako alboko itxiturak, sareak, markagailua. (Berria, lehendik dagoena hobetzea)
- Arregiko aisialdi-eremua.
- Bolatokia, topoaren ondoan, aurrekontuko kontu-saila.

4. Multzoa: ERRETIRATUEN ELKARTEAK

- Lansaiora etorri direnak: Gurea Erretiratuen Elkarte, Aitonak Erretiratuen Elkarte eta San Marcial Erretiratuen Elkarte.
- Bokal eta ordezkaria: Jose Manuel Varona, Aitonak Erretiratuen Elkartekoa

Aurkeztutako alderdiak honako hauek izan ziren:

Ez dute arazo asko sortzen.

- Ikastaroak antolatzea: euskara, teknologia berriak.
- Kirolegia: ez da aski, beren premietara egokituagoa, merkea.
- Adineko pertsonen zuzendutako informazioak arinagoa eta hobeagoa izan behar du.
- Zakurren gorotzak.
- San Markosen itxiera.
- Zerbitzu publikoak sortzea.
- Gazteriarentzako lekuak sortu edo prestatzea.
- Denok Garapen Komunitariorako Planarekin bat egitea. Koordinazioen beharra.
- Hirigintza Oztopoei buruzko azterketa serio eta zorrotz bat egin beharra.
- Gizarte-etxebizitzak.
- "Gure Aitonak" Zaharren Egoitzarako lokal zabalagoak.

5. Multzoa: GAZTERIA ETA DENBORA LIBREKO ELKARTEAK

- Lansaiora etorri direnak: Kemetrontxo, Roteta Elkarteak eta Argibide Gazte Taldea.
- Bokala eta ordezkaria: Verónica Martín, Argibide Gazte Taldekoa.

Aurkeztutako alderdiak honako hauek izan dira:

Orain arte azaldu ez diren premiak bakarrik irakurri dira:

- Topaketarako guneak, lokalak eta azpiegiturak (lehendik daudenak zabaldu eta berriak sortzea).
- Gazteentzako plaza eta jolas-parkeak behar dira.
- Denbora Libreko Taldeek eta Gazte Elkarteek beren jardueretan kirol instalazioak doan erabili ahal izatea (Kirol Departamentuarekin ados jartzea).

6. Multzoa: EMAKUME ETA GIZARTE ELKARTEAK

- Lansaiora etorri direnak: Elkarte Berri, Ostadar C.S.R.C., Uztai Belar, Hegaldi eta Asteartea Lanerako Eskubidearen aldeko Elkartea.
- Azaldutakoarekin bat egin dute: S.E.D.I.V.I. eta REMAR.
- Bokal eta ordezkaria: Esther Modia Ostadar C.S.R.C. Elkartekoa

Aurkeztutako alderdiak honako hauek izan dira:

"Lehentasun handiena duten premien zerrenda prestatu da adostasunez. Jarraian, premia horiek azaltzen dira:

- Elkarteentzako lokal egokiak prestatzea (Uztai Belar,...)
- Diru-laguntzak: aurrekontuek ez dute finkoak izan behar, baizik eta bazkide-kopuruaren araberrakoak
- Adineko pertsonentzako Eguneko Zentro baten beharra.
- Larratxo eta Txirrita arteko irispideak eta igarobideak prestatu eta egokitzea.
- Aparkaleku-premiak eta trafikoa antolatzea.
- Altzako langabeei kontratuak eskaintzea auzoan egiten diren obretarako."

7. Multzoa: AUZO ELKARTEAK

- Lansaiora etorri direnak: Osteguna, Herripe, Bizirik Gaude, Gure Lizarpe Amets, Oletako Jaiak, Pasai Antxoko Auzo Elkarteak, Molinao eta Elkartasuna.
- Bokal eta ordezkaria: Juan Luis Apalategi, Osteguna Auzo Elkartekoa.

Aurkeztutako alderdiak honako hauek izan ziren:

Adostasunez ondorengo puntuak azaltzea erabaki da:

- Garapen Komunitariorako Plana modu pausatua eta zehaztuago batez gauzatu behar da. Eztabaida sakonago bat egin; Komunitateari buruzko gogoeta.
- Elkarte guztiak batera eta ez taldeka biltzeko proposamena eta beharra.
- Mugak? Noraino dago prest Udala egiten diren eskaerei onespina emateko.
- Udalak jada ezagutzen ditu Altzaren dauden premiak.
- Udalaren eta Elkartearen arteko konpromiso-maila.
- Ezin daiteke Altzaren garapena Audituz Akularren menpe jarri. Eraiki baino lehen gauzak hobeto pentsatu beharko lirateke.

19,40 - 19,45 EGINDAKO AZALPENEN LABURPENA
Elisabet Arrieta

I.G.E.ak

1. Espazioak, musika-kontserbatorioa.
2. Kiroldegiaren 2. fasea, gune irekiak.
3. Heziketa-zikloak sortzea (aurretiazko azterketa), erakundeak hobetzea.
4. San Markos ixtea, bide-gorria luzatzea, garbiketa (batez ere Molinao), Nerecan ingurua egokitzea.
5. Ez dago espaziorik, denbora libreko taldeak sortzea.
6. Elkarteak koordinatzeko erakunde bat.
7. Etxebizitzak, aparkalekuak, garraioak hobetzea, asfaltoa, garbiketa, Larratxoko bidegurutzea, aparkalekuak seinalatzea, kamioien aparkalekua, garaje-irteeretan zebra-bideak ezabatzea, lur gaineko aparkalekuak.
8. Kaleetan segurtasun eta zaintza handiagoa.
9. Etxeko laguntzak indartzea, anbulatorioan hobekuntzak egitea (zerbitzuak).

KULTUR ELKARTEAK

1. Udalak baditu baliabideak Altzako premiak ezagutzeko.
2. Komunitatearentzako batzorde aholku-emailea.
3. Garapen Komunitariorako Plana mugatu eta zehaztea.
4. Euskararen Normalkuntza.
5. Buenawista Prolección: Buenavistako Alkateordetzaren eraikina berreskuratzea, musika-ekipamenduetarako laguntzak.

KIROL ELKARTEAK

1. Kiroldegiaren 2. fasea
2. Futbol-zelai berria.
3. Egungoaren hutsuneak konpontzea.
4. Jolastokieta pilotalekua.
5. Nerecan aparkalekuak.
6. Herrerako futbol-zelaia (belar artifiziala, putzuak, futbol-zelaiaren sarrerak, tribunako alboko itxiturak, sasiak moztea, markagailua, aldagelak babestea,...).
7. Bolatokia topoaren ondoan.

ERRETIRATUEN ELKARTEAK

1. Euskara eta teknologia berrien Ikastaroak.
2. Adinekoentzako kiroldegia. Atletismoko pista.
3. Informazio gehiago eta hobea.
4. Garbiketa, San Markoseko obren kontrola, zerbitzu publikoak (Arria).
5. Aukerak eta jolaserako eremuak.
6. Garapen Komunitariorako Planarekin bat egitea. Elkarteen arteko koordinazioa.
7. Hirigintza (oztopoak, altuerak).
8. Gazteentzako etxebizitzak. Etxe handiago baten beharra.

GAZTERIA ETA DENBORA LIBREKO ELKARTEAK

1. Topaketetarako eremuak (zabalagoak edo beste batzuk).
2. Gazteentzako aisialdi-gune irekiak.
3. Kirol instalazioak doan erabili ahal izatea.

EMAKUME ETA GIZARTE ELKARTEAK

1. Aukera eta ordutegi zabaleko lokal egokituak.
2. Diru-laguntzak, kopuru urria.
3. Adinekoentzako Eguneko Zentro baten beharra.
4. Kaleak egokitzea.
5. Altuera desberdinak eta eskailerak Altzako tarte batzuetan: konpondu eta soluzioa ematea (aldapak, eskailera mekanikoak,...).
6. Aldi baterako aparkalekuak.
7. Auzoko pertsona langabeei kontratuak eskaintzea.

AUZO ELKARTEAK

1. Koordinazioan bilera bakar bat ez egotea.
2. Hemen egindako eskaeretan Udalak konpromisoak hartzea.
3. Garapen Komunitariorako gogoeta sakonak.
4. Audituz Akular Altzaren garapenari lotua?
5. Altzaren garapenaren inguruko gogoetak.

19,45 - 20,00 ALKATEAREN ESKU-HARTZEA
Odón Elorza

Datozen urteetan Altzako arazoak konpontzen joango direla espero da. Agertu izan diren arazoak benetakoak eta hor daudenak dira, eta Garapen Komunitariorako Planaren metodologiaren bitartez Udalaren eta elkarteen aldetik horiei irtenbide bat eman ahal izatea espero da.

Premiak lehentasunen arabera antolatu, faseak ezarri eta urratsen araberako helburuak finkatu behar dira.

Altzan aurreikusitako jarduera horietako batzuk egun egiten ari dira, eta gainerakoak datozen lau urteetan garatuko dira.

ELKARTEEK AZALDUTAKO PREMIEN INGURUKO ARGIPENAK:

- Altzan egiten ari diren jarduerak ez daude Auditx Akularren menpe. Esate baterako; Larratxoko parkea, Lau Haizeta, Urban, Izartu, auzoaren atzealdea eraikitzea (saihesbideko zubia Berra arte, 2001ean adierazia), Topoko jarduera (Auditx Akularrekin finantzaketa hobea lortzea, Molinaoko Errekatik igarotzen delako), Nerecan lehengoratzea.
- Altzako aparkalekuek irtenbide zaila dute. Baina lurzorua berrituz Altza hobetzea lortuko dugu, lurpeko aparkalekuak eraikiz, gainazalak erabiliz... Nerecan ingurua aparkalekuetarako erabiliko da. 2003ko otsailaren 28an Gobernu Batzordeak behin betiko onetsi zuen Herrerako B.B.P.B. eta behin-behinekoz Nerecan Proiektua.

- Hemendik bi urtetara zenbait jarduera aurreikusten dira
 - Larratxon ibilerraztasuna lortzeko Jardueren Azterketa (eskailerak / aldapak). 2004. urterako aurreikusten da.
 - Tomasene baserria: egun eskoratu, birgaitze-prozesuan, Casares Kultur Etxearen 2. zabalpena. Bertan kokatuko lirateke liburutegia eta ekitaldi-aretoa, eta egungo Kultur Etxean tailerrak eta beste era bateko jarduerak geratuko lirateke. Badago aurrekontu bat eta 2003-04rako onetsia dago.
 - Elizasu aparkalekua: aurtengo ekaina/uztailerako agindutako proiektua. Plazaren gaineko aldea oinezkoentzako berriro hiritartzea.
 - Oleta hiritartzea (bideak, aparkalekuak).
 - Berrako Urbanizazio Multzoa: Eguneko Zentroa, prezio txikian alokatzeko apartamentuak).
 - Aparkalekua kiroldegiaren atzean, 80 plaza dituela. Asfaltatzea eta argiak. Ekainerako aurreikusia dago, baina atzeratzen ari da, lursailaren egoeraren ondorioz.
 - Auzotarren erkidego batzuek oso hondatuta dauden igarobideak laga edo saldu ahal izatea.
 - Buenavistako Hirigintza Plana aldatzea.
 - Semaforoak Larratxon.

- Egindako jarduerak:
 - Konponketak eskoletan.
 - Teknologia Berrien Zentroa.
 - Casa Nao-n esku hartzea.

- Taldeekin bilerak egiteko aukera, premiei erantzun bat emateko.

20,00 - 21,30 EZTABAIDA

- ◆ Eva Salaberría: Gaur egun, Garapen Komunitariorako Plana "Premien Diagnostikoa" izeneko lehen fasean aurkitzen da; datuen bilketa amaitu ondoren, atzemandako premiak islatuko dituen agiri bat prestatuko da.
- ◆ Juan Luis (Auzo Elkarteak): Tamaina handiko jarduerak Audituz Akularrek baldintzatzen ditu.
- ◆ Alkatearen erantzuna: lurra okupatzea beharrezkoa da Altza zabaldu ahal izateko, baina ongi pentsatu behar da hori nola egin (Topoko jarduera); jarduera horiek gauzatuko dira, nahiz gehiago kostatuko diren etxebizitzarik ez baldin badago.
- ◆ Hilari (Cáritas): Teknologia Berrien Zentroak lekua kendu dio Gizarte Etxeari, eta beraz, jardueren garapenerako espazioak murriztu egin dira. Emakumeen Zentroak egokitzea. Beharrezkoa da elkarrizketaren bidez gauzak lortu ahal izatea eta egunak finkatzea.
- ◆ Daniel (Erretiratuak): Altzan urbanizazioak herriak ordaindu ditu eta orain altzatarren alde zerbait ona egitea merezi dute. Behin-behinekoz Nerecan erabil liteke aparkaleku gisa, obrak hasten diren arte.
- ◆ Juan Carlos (Kultura): Udalak lurra eskuratu dituenean eraitsi da Tomasene baserria, eta beraz, erantzukizuna Udalarena da eta haiek eman behar diote soluzioa.
- ◆ Molinao Auzo Elkarteak: Zergatik gelditu dira Molinaoko obrak.
- ◆ Alkatearen erantzuna:
 - Gizarte Etxea: Ez zegoen aukerarik beste lokaletan; beste batzuek Donostiako erdialdean kokatu nahi zuten; apustu pertsonal bat izan zen, apustu on bat; nortasunaren bereizgarri bat bezala. Teknologia Berrien Zentroa kokatzeko, terraza erabili da. Gizarte Etxeko

aretoak alde zuzenetik eskatu behar dira, egunak erreserbatzeko orduan arazorik egon ez dadin.

- Obrak egiten ari dira, baina atzerapenez. Proposatutako diren eskaeretako asko, egiten ari dira edo egitekoak dira (Altzako jarduerak).
 - Tomasene baserria: Lehenago ere birmoldatu beharra zegoen. Hori berreraikitze proiektu bat badago. Berra Baserriko obrak ere martxoaren erdialde inguruan hasiko dira. Egin beharrekoak diren edo egiten ari diren jarduerak 32 dira, Audituz Akular alde batera utziz.
 - Molinao: Ez dira gelditu, proiektuan daude, atzeratu egin dira ez delako Pasaiako Udalarekin adostasun batera iritsi eta Audituz Akular geldirik dagoelako. Luzuriagaren eraispena ere egiteko dago, baina obra txikiak (espaloiak, errepideak, barandak...) uda amaitu aurretik egingo dira.
- ◆ Imanol (Auzo Elkarteak) : Donostia hiri turistikoa da, baina Altzan non dago turismoa. Pablo Iglesiasen aipamenak (Espiritu sozialista berreskuratzea; lehentasunak politikan).
 - ◆ Hilari (Cáritas): Norentzako eraikitzen dira etxeak? Jadanik bi etxebizitza dituen jendearentzat edo laguntzetatik bizi den eta arazoak dituen jendearentzat. Nominarik gabe ez dute etxebizitza horiek eskuratzeko aukerarik.
 - ◆ Alkatearen erantzuna:
 - Badira proiektu batzuk turismoa hurbilduko dutenak. Ad. topoa.
 - Udalak ez du sekula hainbeste lur erosi etxebizitzetarako, beti dirukopuru zentzuzkoak erabiliz erosten da. Loiolako ibai-bazterretan (Eusko Jaurlaritzaren ondoan) babes ofizialeko etxebizitzak joango dira: Udalak orain ordaindu die duela urte batzuk desjabetutakoei.
 - ◆ Elisabet Arrieta: Beharrezkoa da Garapen Komunitarioarako Plan bat dela berriro azaltzea, ez da hirigintza soilik. Elkartei aitortu egin behar zaie egindako ahalegina, nolabait ere behartuta bezala ibili behar izan baita, eta halaber, diagnostikoan egindako lan guztia. Partidetza antolatzea Garapen Komunitarioarako Planaren funtsezko parte bat da. Elkarteekin, profesionalekin, gazteriarekin... harremanetan jarraitu nahi dugu, eta bigarren fase batean diagnostikoaren agiri hori landu. Bai Mugapenerako

eta bai gainerako lana egiteko ere, aldez aurreko agiriak eta lanak hartu dira kontuan.

- ◆ Eva Salaberría: Garapen Komunitariorako Planean bai Erkidegoak eta bai Administrazioak ere hartzen dute parte.
- ◆ Maruja (Emakumeen Elkartea): Harri Berriko transformadorearen potentzia handitzeari soluzio bat eman.
- ◆ Alkatearen erantzuna: Iberdrolak egin beharko lukeen inbertsio bat da, baina diru asko kostatzen da eta ez daude hori egitera behartuta.
- ◆ Bilerara etorritako bat: Ez dago argirik eta Altza-Eskalantegi eskailera hobetu beharra dago.
- ◆ Juan Luis (Auzo Elkartea): Ados Elisabetekin. Eztabaidak eta gogoetak gai sakonagoak jorratu beharko lituzkete, ez axaleko gauzak bakarrik. Alkateari eskatu dio finkatu ditzala taldeekin bilerak egiteko egunak.
- ◆ Bilerara etorritako bat: Harri Berriko obrak amaitzen direnean, pentsa dezatela zer eratako obrak egin behar diren inguru horretan eta egin ditzatela denak batera, bestela inguru hori etengabea baitago obretan.
- ◆ Aitor (Auzo Elkartea): talde bakoitzean lortutako ondorioak ezagutzea faltan bota du, eta halaber, elkarte guztiek bilera bat egin beharra. Euskararen motibazioa. Penagarria da baserri bat lurrera botatzea eta ez erostea paseatzeko inguru baterako eskainiz.
- ◆ Bilerara etorritako bat (Herrera): Data bat jar dakioke Herrerako B.B.P.B.ari.
- ◆ Buenawista Prolleckcioms: Ongi dago era honetako bilerak egitea. Erabiltzen duten lokala galtzeko zorian daude. Erakundeen eta pertsonen arteko giza harremanak eta komunikatzeko bitartekoak hobetu; erakundeek ez dute beti konfiantza ematen.
- ◆ María Terán (I.G.E./Gazteria): Bi haurtzaindegi publiko daude Altzan. Hezkuntza Sailean zenbait aldaketa proposatzen ari dira eta ez dakite nola geratuko den egoera hori.

- ◆ Alkatearen erantzuna:
 - Molinao: aurrekontuaren zati bat hobekuntza txikietarako xedatzen da (argiteria, barandak, asfaltatzea, ...).
 - Herrerako B.B.P.B.: 2003ko otsailaren 28an Gobernu Batzordeak behin betiko onetsi zuen Herrerako B.B.P.B. Badago horretarako xedatutako aurrekontu bat.
 - Haurtzaindegiak: Hezkuntza sailaren menpe daude, baina eskumenen esku-aldaketa bat baldin badago, Udalak bereak hartuko ditu.

- ◆ Enrique Ramos:
 - Altzak dituen baldintza jakin batzuei esker, Garapen Komunitariorako Plana hemen gauzatuko da.
 - Talde teknikoa eraikuntza eta aholkularitzarako organo bat da.
 - Buenawista Prolleckcioms-i emandako erantzuna: bazkide guztiekin eta departamentu desberdinekin hitz egin da; akordioak lortzen ari dira, eta datorren astean berriro bilduko dira.

- ◆ Bilerara etorritako bat: Auzo Elkarteek lana kontuan izan eta aitortu egin behar da.

- ◆ Eva Salaberría:
 - Garapen Komunitariorako Planak ez du lehengoaren jarraipena izan behar, denon artean zerbait desberdina eraiki nahi dugu. Herritarren eta Udalaren arteko harremanak nola antolatu eta denon artean nola egin izango litzateke helburua.
 - Hitzarmena: Akats informatiko baten ondorioz ezin da gaur aurkeztu, datorren astean egongo da prest, bilerako aktarekin batera.
 - Ez hainbeste aholkularitzarako organo bat, baizik eta Elkarteek eta Udalak batera lan egin dezatela.

- ◆ Elisabet Arrieta: taldekako bilerak ez dira egin bereizteko, baizik eta eraginkorragoak eta baliagarriagoak izateko; hitzarmena postaz bidaliko da bilerako aktarekin batera, gutunean hori berrikusteko epe egokiak zehaztuko dira eta elkarteekin berriro harremanetan jarriko gara.